



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak
Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

2016ko ekainak 20 - 21 - 22 • Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera – Donostia

Lantegiaren kronika. 3. eguna: ekainaren 22a

Kronikagilea: Garazi Arrula Ruiz

DESERRIA ITZULTZEN (eta III)

Azken egunari beste gonbidatu batekin ekin diogu. Iñaki Inurrieta itzultzailea etorri da Tabakalerako hirugarren solairuko lantegira, kostata, informazio bulegoan ez baitzekiten nonbait itzultzaile-talde bat buru-belarri lanean bazenik. Iñurrietak gaztelaniara eraman zuen Arantxa Urretabizkaiaren *Koaderno gorria*, lantegi honetan aztergai duten obra. Itziar Otegi koordinatzaileak, hasteko, jakin nahi izan du nola egiten den lan autorea eskura izan eta testua “kontrola” dezakeela jakinda. Iñurrietak erantzun du aspaldi itzuli zuela testua (2002an kaleratu zen *El cuaderno rojo*), eta lantegi honetarako prestatzeak balio izan diola itzultzaile ibilbideari errepaso emateko. Hala ere, Iñurrietak prestatutako paperak baztertu eta mahai-gainean ateratzen ziren gaiei eta burura zetozkionei heldu die. Horietako bat irakurlearen auzia izan da: nor dugu buruan gaztelaniara itzultzean? Hego Amerikako irakurlearengan pentsatzen dugu? Estatukoei zuzentzen gatzazkie, edo bizilagun ez euskaradunari? Iñurrietak esan du euskarazkoa kaleratu eta urte gutxira atera zela gaztelaniazkoa, argitaletxe berean; beraz, hipotesi modura, euskal herritarrengana ailegatuko dela bereziki. Erantzun kategorikorik eta erabatekorik ez dute eman, ordea. Urretabizkaiak aipatu duenez, hurrengo liburu baten harira, ama-hizkuntza gaztelania zuen itzultzaile bat aukeratzeko gomendatu zion editoreak, tokiko dialekto-markak saihestearren.

Atzo atera ziren bi kezka azaleratu dira berehala: *Ikastola* eta *Iparralde*; Iñurrietaren esanetan, «gehiegizkoa» iruditu zitzaion *Iparralde* bere horretan uztea, «gure kodearen barruko» hitza delakoan; hori dela eta, «en las Landas» jartzea erabaki zuen, eremu geografikoari erreferentzia egiteko. Aldiz, *Ikastola* bere horretan utzi zuen, Estatuan ezaguna zelakoan, *El Paisen* ere hala agertzen baita. Iñurrietak aurreratu du oso gutxi itzuli duela euskaratik gaztelaniara; lehena saiakera bat izan zen, unibertsitateko ikasleei zuzendua bereziki, eta gero bi nobela etorri ziren, «Urretabizkaiaren hau eta Lourdes Oñederraren bat». Esperientzia gabezia horretatik, itzultzaileak atalez atal bidali nahi izan zion obra idazleari, itzuli ahala begira ziezaion, baina autoreak ezetz erantzun, eta bere kasa



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

Mariyaren kezka ilustratzeko asmoz edo, Urretabizkaiak pasadizo bat kontatu du: DSS2016EU programaren bitartez, Menna Elfyn idazle galestarrarekin gutun-trukean ari da, eta gutun batean honela definitzen zuen Elfynek itzulpena: «norbaiti ezpainetan musu ematea zapi bat tartean duzula». Mezu-truke horretan bi zapi omen, euskaratik ingelesera eta ingelesetik gaelikora egiten baitu bidaiak. Baieztapen hori itzultzaileontzat mingarri gerta badaiteke ere, umorez hartu dute parte hartzaileek: «beste musurik ezagutzen ez baduzu, azkenean plazera bera» izanen da, Iñurrietak dioenez, eta «oztopoek pasioa handitzen dute», Urretabizkaiak. Zapia mehea, lodia, gozagarria ere izan daiteke, bada. Ondorioztatu dutenez, guztian zailena begirada xede-hizkuntzara eramatea da, zapia gorabehera. Historian obra beraren itzulpen-bertsio bat baino gehiago egon dela gogorarazi dute, lehen arras ohikoa zela hori. Iñurrietak kontatu du Borgesena: ingelesez irakurri zituen On Kixoteren abenturak, ingelesez baino irakurtzen ez zuen garaian, eta gero, gaztelaniazkoa hartu zuenean, pentsatu zuen oso itzulpen kaxkarra zuela esku artean.

Koaderno gorria gaztelaniara itzultzean izandako zailtasunik handienak zeintzuk izan ziren galdetu diote Iñurrietari. Lehen aipaturiko «estilo ertaina» euskarazkoan ahozkotik hurbilago dago gaztelaniazko estilo ertaina baino; esaterako, euskaraz “aho zabalik” agertzen da testuan, eta itzultzaileak *perplejo* ordainaz eman zuen, gure kaleetan hain ohikoa ez dena. «Iruditu zitzaidan *boquiabierto* jartzea ez zela egokia». Beste adibide bat jartzeko, Iñurrietak ekarritako orrien artetik “min gehiago egin dio” aipua berreskuratu du; gaztelaniaz, *le ha hecho más daño* esanzen genuke gehienok kale-hizkeran, baina itzulpenean *se ha sentido más afectada* eman zuen berak. Autoreak esan du halako gauzak direla, hain zuzen, itzultzaileek egitea gustatzen ez zaiona, hizkuntza maila «igotzea» dela iruditzen baitzaio; Urretabizkaiarena hautu kontzientea da jendearen hizkerara hurbiltzeko. Zein da, ordea, xede-hizkuntzaren estilo ertaina? Itzultzaileak interpretatu beharko du hori, eta hala egin zuen Iñurrietak, «gure gaztelaniako estilo ertainak eta Murtziakoak bat eginen ez badute ere». Esan daiteke, beraz, xede-testuan nolako hizkuntza darabilen, halako irakurlea izan zuela buruan itzultzaileak, kontzienteki nahiz inkontzienteki.

Letren Fakultatean Mariyak, Barbarak, Laurak eta Katarzynak egin zuten solasaldian, itzultzaileek aipatu zuten obra «hobetu» behar dela sorburu-testua “ongi” ez dagoenean. Horri buruz galdetu die Itziar Otegik, eta Katarzynak esan du orain arte hala egin duela berak, ez testu literarioekin, baizik eta bestelako itzulpenekin; esaterako, errepikapen aunitz daudenean edo autorea, «itxuraz», luzamendutan dabilenean. Arroztasunaren eta etxekotzearen muturren arteko continuumaz mintzatu dira, hain zuzen atzo arratsaldean denboragatik egiteko utzitako eztabaidari helduz. Polonian, irakurlearengan pentsatu behar duela esan du Katarzynak, zeren orain irakur ohitura gutxiago dago: «duela mende bateko



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak

Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

literaturaren ideia agortzen ari da». Karinak azaldu du berean ohitura dagoela hizkuntza-maila egokitzeko, hots, autorearen idazkera traizionatu egiten dela irakurle errusiarraren irakur-ohituretara moldatzeko; kasurako, errusieraz Hemingwayren testuak ingelesezkoak baino literarioagoak omen dira. Laurak esan du teoriaran gustatzen zaiola Urretabizkaiak aipatutako «maila ez igotze hori», baina Lituaniar editoreek ez luketela onartuko eta itzultzaileen gaitasun faltari egotziko lioketela.

Gereziak, sagarroia eta tralala

Kafe tartearen ondoren, Sarrionandiaren poemei begiratu diegu Eva Linazasoro gaztelaniarako itzultzailearekin. Lehenik, baina, atzoko saioan zintzilik geratu ziren bi galderari heldu diogu, Sarrionandiaren erantzunak iritsi baitira: lehena esaldiak mozteko moduari buruzkoa zen, zangalatrauen zergatiaz; autorearen arabera, erritmoagatik eta bisualagoak izateko egiten du mozketa berezi hori, eta gaineratu du paradoxak eta hiperboleak kasuan kasuko poemaren argumentazioarekin harremanean daudela; bigarren galdera “Gure begiek” testuaren zati bati buruzkoa zen, zenbait aditz inbertsonal bigarren pertsonan jartzea zuzena ote den (ikus atzoko kronika); Sarrionandiak baietz, nahiz eta «norbere buruaz ari dela ere pentsa daitekeen».

“Martin Larralde”rekin sartu dira jarraian; Linazasorok kontatu duenez, Hazparden jakin berri du artxibo-ikerketaren ondorioz deskubritu dutela *Galerianoaren Kantua* ez dela Martin Larralde idatzia, analfabetoa baitzen, hari egotzi bazioten ere. Isaac Xubínek galegora itzulitako bilduma bezala, Linazasoro *Tiempo de exilio* edizio elebiduna (eus-es) prestatzen ari da, Pamielak udazkenean kaleratzeko asmo duena. Oro har, itzultzaileak kontatu duenez, Sarrionandiak lehenengo itzulpen bat egiten du, eta horren gainean aldaketa linguistiko eta estilistikoak egiten ditu gero itzultzaileak. Esaterako, gerundioa oso maiz darabil Sarrionandiak gaztelaniaz, itzultzailearen ustez zenbaitetan egokiak ez direnak. Linazasororen irudikoz, autoreak garrantzia irudiei ematen die, ez hainbeste neurri eta halakoei, beraz, aholkatu die ez beldurrik izateko beren hizkuntzetan moldatzeari. “Martin Larralde” poemak sortutako itzulpen-kezka zehatzetara etorrira, sagarroiaz mintzatu dira («arantzak barrurantz itzuliak lituzkeen / sagarroia bezala»), Laura lituaniarraren ustez poeman erabakigarria baita, metaforak arriskua adierazten duelakoan; lerro bereko *itzuli* aditzaren polisemiak ere mintzatu dira, beren hizkuntzetan zein ordain dagokion hobekien.

Zenbait silaba zatikatuta ageri da “Mundua zabala eta arrotza da” poeman, hala nola, «M u n d u a» eta «za-ba-la-e-ta». Errusieraz nola egin duen galdetuta, Karinak esan du moldatu dela nolabait zatikatzeko, nahiz eta labur-labur geratzen zaion. Bisualki ez duela efektu bera-eta, beharbada aldatuko duela esan du. Eten



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

puntuen ondoko «arrotza da!» hitzekin bukatzen da poema; horri buruz Laurak aipatu du oro har lituanieraz aditza kentzera joko balute ere, oraingoan jarri egin duela, indarra ematen diolakoan. Poemaren izenburu Barbaren arabera «prosaikoak» Ciro Alegriaren nobelari erreferentzia egiten dio, eta zenbait ediziotan oin-oharra jarri diote, Alegriaren nobelaren berri emateak poema ulertzen laguntzen duelakoan. Mahai-inguruko itzultzaileek ez dute pentsatu halakorik egitea, ordea.

Bukaeratik hasi gara “Poesia hilda dago baina ez naiz ni izan” testua aztertzen: nola emanen dute «Lelo lirelo bai lelo, lelo zarai leroba...»? Zerbait arina, fiboloa dela esan du koordinatzaileak: poesia hil eta gero geratzen dena hori da, zerbait herrikoia. Laurak dio lituanieraz herri-kantu tradizionalak tristeak direla oso, «XX. mendera arte maitasunez ere ez zuten hitz egiten», eta oraindik erabaki gabe dagoela. Barbarak, berriz, «tralala» eman du oraingoan, ez baitu ume-kantuen itxura hartzerik nahi. Errusieraz ez dago arazorik, badituzte hamaika koplak, eta urki bati buruzko kantu bateko errepika jarriko du Karinak. Itziar Otegi kantuan ere jarri dute itzultzaileek, nor bere doinua abestu aurretik.

Bidalitako oharretan, Sarrionandiak gakoa eman die “Gerezien sasoia iritsi da” testua ulertzeko: «aldaketa politiko eta sozioekonomikoen ondorengo bizimoduaren metafora moduan erabili daiteke». Laurak esan du lituanieraz badela vals garaikide bat oihartzuna sor dezakeena poema hau irakurtzen duten irakurleengan. Gereziak literaturaren duen pisuaz eta horren sinbologiaz mintzatu dira. Eslovenieraz bada haur-abesti arras ezagun bat dioena gerezi beltza nahiago duela gorria baino; izan ere, esloveniar literatura josia dago gereziz, eta hitz bat baino gehiago dituzte gerezi motaren arabera. Alta, Otegi dio bi hitzez eman baino, gorde behar dela izena+adjektiboa «gerezi gozoak, edo gerezi garratzak» bikotean, esaterako, poemaren ardatz baita dikotomia. Nolanahi den, Barbarak ez du argi ikusten bi izen ez erabiltzearena; izan ere, hain da sinbologia handia, non «Gerezien sasoia iritsi da» eslovenieraz esatean, lehia-kutsua har dezake, hots, uler daiteke “auzia garbitzeko unea iritsi” dela. Norbaitek proposatu du frutaz aldatzeko, baina horrek Jean-Baptiste Clémenten “Les temps des cerises” poemari erreferentzia ezabatuko luke.

Parentesi batean, Linazasorok esan du Sarrionandia nahiko uzkurra izan dela itzulpenarekiko, ustez, euskal literaturaren autonomia babesteko. Itzultzailearen arabera, aldi berean gaztelaniaz eta euskaraz kaleratuz gero, irakurleak zuzenean joko luke gaztelaniazkoa erostera eta, hori sistematikoa balitz, «euskal literatura akabatuko genuke».



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

Ikurrina bere horretan utziko dute “Herri proiektua” poeman. San Agustin eta Malthus aipatzen ditu Sarrionandiak, eta hori nola emanen duten galdetu die koordinatzaileak, argia ote den; Laurak dio lituaniar irakurleak San Agustinena

ulertuko duela, baina ez dutela jakinen Malthus nor den. Euskal irakurleak ba al daki, ordea? Oin-oharra jartzeaz edo bestela emateaz eztabaidatu dute; frantsesezkoak, esaterako, «San Agustinenak pasa» hori *subir les pires épreuves* jarrita konpondu du. Zalantza eta, beraz, iritzi-trukea sortu duen beste sintagma bat «swahili beltzez / eta eskandinaviar blondez» izan da; nolako sorterrria, halako arrotasun maila.

Aztertutako azken poema Roberto Mujikari egotzitako “Ibaia” izan da. Metrika darabilen poema bakarrenetakoa da, musika zegoela eskatu baitzioten letra. Bertso librean emanen dute, metrika gorde gabe. “Harripauseta” toponimoa autoreak *pasos de piedra* eman du gaztelaniaz, eta horren biderei segitu diote itzultzaileek euren hizkuntzan, izen arruntez emanaz. Izen bereziak zer grafiaz transkribatu eta nola moldatu ere mintzatu dira, lituanieraz, kasurako, ez baita horren inguruko araurik.

Sei poemon azterketa xehearekin eman dute bukatutzat goizeko saio eta hiru egunotako itzulpen-lantegia. Izan ere, arratsaldean jendaurreko emanaldia izanen da, eta bazkalondotik ordura arteko tartean prestaketa-lanetan aritu dira parte-hartzaileak. Hondartzak eskola agurtu berri duten umeez, turista ongi ekipatuz eta 33 graduko bero-sapaz estalita daudela jakin dugunetik, atseginago zaigu Tabakalerako itzalpe isil hau.

Autopsia baino gehiago, «festa»

Hogei ikus-entzule inguru bildu dira emanaldian, parte hartzaileez gainera. Hasieran, protokoloari jarraikiz erakundeei hitza eta bertaratukoei eskerrak emanda, Arantxa Urretabizkaiari galdetu dio Itziar Otegik zer iruditu zaion egunotako disezio-saioa. Idazleak aipatu duenez, «euskal literatura kanporatzea oraindik mirari bat iruditzen zait, eta mirari horretan parte hartzea izan da lantegi hau». Ohiko izendapenetatik (disezio, autopsia) urrun, «festa» modura definitu du idazleak mintegia. Jarraian, Joseba Sarrionandiaren testu bat irakurri dute, ordenagailuaren bestaldetik jarraitu baitu lantegia, baina berdin eman ditu eskerrak, hitzarekin jolasteko aukera emateagatik: «Hizkera ez da komunikabide hutsa, baizik eta ezagumen eta elkartasun bide bat».

Zazpi itzultzaileek beren iritzia eman dute, bai Itzultzaile Berriak programaren esperientziari buruz, oro har, bai hiru egunotako mintegiari buruz, zehazki. Aztergai izan dituzten testuen indarra eta kalitatea nabarmendu dute, eta



DSS2016.EU



Itzultzaile berriak Idazleak itzultzaileen lantegian

DESERRIA ITZULTZEN

noizbait beren hizkuntzan agertuko diren esperantza azaldu. Besteak beste, idazlearekin alboz albo egoteko aukera, euskararekin izandako estualdiak eta beste itzultzaileekin elkarlanean aritzearen onurak aipatu dituzte. Euskal Herrian egon diren hilabeteen ondoren, hasierako talka gaindituta, zapore gozoa geratu zaie, eta zatitxo bat eramanen dute etxera: «Zuen kultura ez da zuena bakarrik, gurea ere bada». Azkenik, irakurraldi eleanitzari ekin diote (bederatzi hizkuntzetan), lehenik Sarrionandiaren sei poema eta, gero, Urretabizkaiaren *Koaderno gorriaren* zati bat, batean zein bestean sorburu-testua eta xede-testuak tartekatuz. Gainera, musika ere jarri diote hainbeste letrari; Xabi Strubellek gitarraz lagundu ditu irakurraldiak, eta orobat kantatu ditu “Propostas para a definição do exílio” eta saio honetarako berariaz prestatutako *Koaderno gorrian* oinarrituriko abesti bat. Ohitura onei eutsi behar zaienez, jan-edanez bukatu da emanaldia, solas ederrean.

Kronikagile honek ezin du kronikotatik kanpo besterik esan bere parte hartzeaz, ezpada plazer hutsa izan dela zazpi itzultzaileok ezagutu eta haiekin hiru egunez lan egitea. Mila esker, beraz, Itziar, gonbitagatik.